



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

## EUROPAKO 20 HERRIALDETAKO ENBAXADOREEK GERNIKAKO BATZAR ETXEA BISITAU DABE

- Europar Batasuneko Diplomazia Taldea ia osorik egon da gaur goizean Gernikan, Europar Batzordeko ordezkariakaz batera, EBko Kontsejuko lehendakaritzak antolatutako bidaia batean.
- Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria izan da bisitaren anfitrioi eta gidaria.

*(Gernikan, 2021eko irailaren 19an)*. Europar Batasuneko diplomazia talde ia osoak Gernikako Batzar Etxea bisitatu dau gaur, EBko Kontsejuko lehendakaritzak berak antolatutako bidaia historiko batean. Bidaia hori Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia ari da koordinetan, Euskaditik egiten ari dan ibilbidean. Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak egin ditu gidari lanak, eta 20 enbaxadoreei Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzaren garrantzi historikoa azaldu deutse, eta baita Gernikako Arbolak euskaldunentzat daukan esanahia be.

Haretx zaharrak atsedean hartzen dauen lekua izan da Esloveniaren esku dagon Europar Kontsejuko lehendakaritzak aukeratutako lekuetako bat, Euskadin daukan agenda estuaren derrigorrezko geldialdi moduan. Europako ordezkartzea Eslovenia, Austria, Eslovakia, Finlandia, Danimarka, Alemania, Kroazia, Estonia, Herbehereak, Suedia, Grezia, Portugal, Malta, Lituania, Zipre, Letonia, Bulgaria, Hungaria, Luxenburgo, Irlanda eta Poloniako enbaxadoreek osatu dabe. EBko estatu kide horreetako ordezkariakaz batera Maria Angeles Elorza Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusia eta Mikel Anton Europako Gaietarako zuzendaria etorri dira.

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak harrera egin deutso taldeari Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzako eskileratan bertan, eta handik barruko hainbat gela eta interesgune bisitatu ditue, baita Gernikako Arbola be. Robert Krmelj Esloveniako enbaxadoreak, talde diplomatikoaren ordezkari moduan, Batzar Etxeko ohorezko liburuan sinatu dau azkenean, haretxaren ondoan familiako argazki bat atera ostean.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **EMBAJADORES Y EMBAJADORAS DE 20 PAÍSES EUROPEOS VISITAN LA CASA DE JUNTAS DE GERNIKA**

- **El Cuerpo Diplomático de la Unión Europea casi al completo ha estado esta mañana en la villa foral, junto a representantes de la Comisión Europea, en un viaje organizado por la presidencia del Consejo de la UE.**
- **La presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui Biteri, ha sido la anfitriona y guía de esta visita sin precedentes.**

*(Gernika, a 19 de septiembre de 2021).* El cuerpo diplomático casi al completo de la Unión Europea ha visitado hoy la Casa de Juntas de Gernika, en un viaje histórico organizado por la propia presidencia del Consejo de la UE y que, en su recorrido por Euskadi, está siendo coordinado por la Secretaría General de Acción Exterior del Gobierno vasco. La presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha hecho las funciones de guía, explicando a los 20 embajadores y embajadoras la importancia histórica de la sede parlamentaria de Bizkaia y el significado que tiene para vascos y vascas el Árbol de Gernika.

El lugar donde descansa el viejo roble ha sido uno de los lugares elegidos por la presidencia del Consejo europeo en manos de Eslovenia como parada obligada en su apretada agenda por Euskadi. La delegación europea ha estado compuesta por los embajadores y embajadoras de Eslovenia, Austria, Eslovaquia, Finlandia, Dinamarca, Alemania, Croacia, Estonia, Países Bajos, Suecia, Grecia, Portugal, Malta, Lituania, Chipre, Letonia, Bulgaria, Hungría, Luxemburgo, Irlanda y Polonia. Los representantes de estos estados miembros de la UE han venido acompañados de María Ángeles Elorza, Secretaría General de Acción Exterior del Gobierno Vasco, y de Mikel Antón, director de Asuntos Europeos.

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha recibido a la comitiva en las mismas escalinatas de la sede parlamentaria vizcaína, para desde aquí recorrer las distintas dependencias y puntos de interés del complejo parlamentario, incluido el Árbol de Gernika. El embajador de Eslovenia, Robert Krmelj, en representación del resto del grupo diplomático, ha firmado finalmente en el libro de honor de la Casa de Juntas tras sacarse una foto de familia junto al roble.